

udajolas

2020
udaleku irekiak

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



Informazio eta komunikaziorako telefono eta emaila:

📞 688 807 336

✉ udajolas2020@gmail.com



Usurbilgo Udala

noqua



Izena ematerakoan onartu beharreko arauak:

1.- Arrisku taldeko pertsonekin harremana duten hurrek izenik ez ematea gomendatzen da. Arrisku taldeak dira: diabetesa, gaixotasun kardiobaskularrak, hipertentsioa, biriketako gaixotasun kronikoa, tratamenduan dagoen minbizia... dutenak. Halako egoeraren bat bizi dutenekin harremana duten hurren gurasoak izango dira gerta daitekeenaren erantzule zuzenak.

2.- Parte-hartzaileetakoren batek COVID-19aren proban positiboa ematen badu, haur talde horren udako programa bertan behera geratuko da, eta haurrak etxean geratuko dira. Kasu horretan, Udalak ez du dirua itzuliko.

Eguneroko zerbitzuaren aurretik etxean bete beharreko urratsak:

1.- Haurrak edota haren senide batek COVID-19arekin loturiko sintomaren bat badu, ez da udalekura joango eta zerbitzuko begirale edo arduradunari egoeraren berri emango zaio.

2.- Hurrek norbere maskara eraman beharko dute, eta 2 metroko distantzia bermatu ezin den ekintzetan derrigorrez erabili.

3.- Etxetik atera baino lehen, haur guztiek tenperatura hartu beharko dute, eta eskuak ondo garbitu.

4.- Haurra eraman eta jasotzeko aurrez adierazitako tokia izango da, egunero toki berean utzi eta jasotzeko.

5.- Guraso/tutore legalak telefono zenbaki bat eman beharko dio antolakuntzari eta berau uneoro eskura izan ezustekoren bat gertatzen bada ere.

Eguneroko zerbitzuak iraun bitartean:

1.- Begiraleek osasun zainketa ohitura batzuk beteko dituzte. Haurrak maskara duen bermatu (etxetik ez badu ekarri begiraleak izango du maskara haurrarentzat), eta hurrei eskuak garbitzen lagunduko diete. Eskuak zerbitzuaren hasieran eta amaieran garbituko dira, baita hezitzaileak beharrezkoa ikusten duenean ere. Egiten diren ekintzetan distantziak ahalik eta gehien mantentzen saiatuko dira.

2.- Haur guztiek eskuak garbitzeko beti izango dituzte eskura gela edo xaboia, ura eta papera.

3.- Ez da egingo gertutasun fisikoa eskatzen duten ekintzarik.

4.- Ahal den guztietan ekintzak kanpoan egingo dira, arrisku gutxiagoko lekuetan.

5.- Taldeak ez dira beste talde batzuekin elkartuko. Talde bakoitzak begirale eta zirkuitu jakina izango ditu.

6.- Haur batek ekintzak iraun bitartean COVID-19aren sintomaren bat (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasunak...) balu, haren guraso/tutoreari jakinaraziko zaio, taldetik urrunduko da, eta maskara jarriko zaio. Horren ostean, familiak osasun zentrora eraman beharko du, eta osasun zerbitzuak dagokion jarraipena egingo du.

7.- Sintomarik ez izan arren, COVID-19 daukan norbaitekin egon den haurrak ezingo du 14 egunez ekintzan parte hartu. 14 egun horietan jarraipena egin beharko zaio birusaren zantzurik agertzen bada ere.

8.- Haurrak zerbitzuan parte hartzen ez duen egunetan guraso/tutoreak arrazoia jakinarazi beharko dio begiraleari.

9.- Haurrak egunero bere hamarretakoa ekarri beharko du, eta ezingo du bere lagun taldearekin banatu.